

Hurrengoak gu

“Behin zure hizkuntza proiektu sendo batean sartuz gero, hurrena datorrenak, aurrekoa zein hizkuntzataraz itzuli duten begiratu du, eta naturaltasun osoz sartuko du zurea. Horregatik, kontua oso sinplea da: edo zerrendan zaude, edo ez zaude. Horregatik, ahal den ahalegin guztia egin behar da bertan egoteko”. Vilaweb webguneko zuzendari Vicent Partalen hitzek argi erakusten dute zergatik abiatu den sarean Twitter euskaratzeko kanpaina.

LANDER ARBELAITZ

INORK GUTXIK iragarriko zuen horrenbeste atxikimendu lortuko zituela Twitter euskaratzeko sarean hasitako kanpainak astebete. Artikulu honen sinatzaileak ARGIAko bere blogean abiatutako kanpainak babes zabala jaso du euskal internauten artean, eta AEBetako enpresaren zuzendari nagusiari nabarmendutako mezu gisa iristen zaio “*We would like to translate Twitter to Basque*” esaldia erabiltzaile berri batek kanpainan klik egiten duen bakoitzean. Astebete 1.450 aldiz heldu zaio aldarria.

Egun Twitter zazpi hizkuntzatan dago erabilgai: ingelesez, gaztelaraz, korearrez, japonieraz, alemanez, frantsesez eta italieraz. Hurrenak errusiera, indonesiera, turkiera eta katalana izango direla jakinarazi berri dute; azkena, Albert Cuesta kataluniarrak hasitako kanpainari esker. Nazioarteko zerbitzu arrakastatsua beren hizkuntzan horren azkar jaretzea garaipen handia izan da kataluniarrentzat. Urtebete 3.500 atxikimendu lortu dituzte kausa honen alde. Teknologia berrietan presentzia bermatzeari garrantzi handia ematen diete kataluniarrek, eta euren lorpenik handiena .cat domeinuaren lorpena izan da. Bide horren jarraipena da azken hau.

Kanpainaren bultzatzaileek kataluniarrek egindako berbera abiatu dute eta kopuru berera heltzea jarri dute helburu. Euskal Herriko mugetatik harago ezagunak diren erabiltzaile euskaldunen babesa izan du kanpainak hasieratik, eta adibidez, Xabi Alonso, Patxi Lopez edo Fermin Muguruzak kanpainaren berri eman dute hainbat hizkuntzatan. Nabarmenezkoa da, Real Madrileko futbolari tolosarra 360.000 pertsona baino gehiagok jarraitzen dutela, gainontzeko euskaldun guztiak batera kontatuta baino milaka batzuk gehiago.

Euskara hizkuntza modernoa dela erakutsi dugu jadanik. Google, Wordpress, Windows, Firefox eta Facebook euskaraz ditugu, beste askoren artean. Twitterren sartzeari garaipena litzateke guretzat ere.

2006. urtean sortu zen Twitter, eta Facebookekin batera, sare sozialen sinboloa da. Oraindik ere. Facebook nagusi den arren, Twitter pixkana indartzen joan da. Egun, Wikipediaren arabera, 190 milioi erabiltzaile ditu mundu osoan eta egunean 65 milioi mezu bidaltzen dira zerbitzu hau erabiliz. ■

Kanpaina babesteko: <http://act.ly/35s>



Udaletako euskara-zerbitzuen III. topaketak

Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
2011ko apirilaren 7an eta 8an

Gaia: “Zer da euskara euskaraz ez dakitenentzat? Haiek euskarara hurbiltzeko, zer eta nola egin daiteke udaletatik?”

matrikulazioak online martxoaren 24ra bitartean - **PLAZA MUGATUAK**
www.udaltop.com